

MOZIO ARRUNTA,

DONOSTIA ETA LEIOAKO UNIBERTSITATEKO CAMPUSA LURRALDEBUS ZERBITZUAREN BITARTEZ LOTZEARI BURUZ

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Donostia eta Leioako unibertsitateko campusa Lurraldebus zerbitzuaren bitartez lotzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

2023eko martxoaren 27an, Foru Aldundiaren webgunean zabaldutako albistegian besteak beste, honako hau adierazten zen:

“Leioako EHUra iristea ere funtsezko eskubidea da, unibertsitatera sartu ahal izateko mugak, edonolakoak, ekonomikoak eta geografikoak kentzeko dugun lehentasuna betetzea dakarrelako. Izan ere, edozein gaztek – bizi den lekuan bizi dela ere, eta familia-baliabideak alde batera utzita – garraio publikoko tarifa ekonomikoekin joan ahal izan behar du EHUren Bilboko fakultateetara.

Laster, EHUK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarduera-protokolo bat sinatuko dute, Bizkaiko Leioako campusari zerbitzu zuzena emateko baldintzak arautzeko. Hasieran, diskrezionalki emango da, baina MUGIren deskontuak aplikatuko dira Mugikortasuneko Foru Departamentuaren kargura, eta hitzarmen bidez arautuko da 2025era arte, zerbitzu hori zuzenean sartuko baita Lurraldebusen ibilbide luzea arautzen duen emakidan.”

Leioako EHUra iristea funtsezko eskubidea den arren, gaur egun ez dago Donostia eta Leioako campusa zuzenean lotzen dituen autobusik. Hortaz, ikasleek eta irakasleek denbora luzea galtzen dute bertara iristeko garraio publikoz joan nahi badute. Bestela, autoz joatera edo Leioan bertan egoitza bilatzera behartuta daude, horrek suposatzen duen gastu ekonomikoarekin. Ondorioz, badira arrazoi horregatik Leioara lanera edo ikastera ez joatea erabakitzen dutenak ere.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia eh_bildu@donostia.eus

2020ra arte Bidai Txungo elkarteak ematen zuen Leiorako autobus zerbitzua; ikasleak beraiek arduratzen ziren zerbitzua kudeatzeaz. Egunero 20 autobus baino gehiagoko zerbitzua ematen zuen.

Ikasleek eta irakasleek eskaera egin zuten Donostia eta Leioa lotuko zituen autobus publikoa ezartzeko. Baina Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2023ko martxoaren 27an esandakoaren kontra, haren Mugikortasun diputatuaren bidez adierazi zuen Leioako campusera egunero joan eta etortzea berriazko talde bati zuzendutako zerbitzu berezia zela, eta beraz, ez zela foru erakundearen eskumena. Eta egungo arazoari irtenbidea emateko, beraiek zerbitzua kudeatzeko gonbita egin zien ikasleei. Horretarako, ikasleak irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortzera animatu zituen, haiak kontratatu zezaten garraio pribatua emango zuen enpresa bat. Hori bai, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntza emango ziola elkarteari eta horrela lankidetza publiko-pribatua sortuko zutela. Mugikortasun diputatuak aditzera eman zuenez, 2025ean, emakida-prozesua berritzearekin, zuzeneko ibilbide hori estaliko lukeen linea bat ezartzeko aukera azter liteke.

Leioako campusera egunero joaten diren ikasle eta langile askok neurri horrekiko desadostasuna adierazi dute eta Leioako campusera doan autobusa zerbitzu publikoa eskatu dute.

Hori guztia dela eta, mozio arrunt hau aurkezten dugu.

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Lurrezuzen zuzeneko garraio-zerbitzua jar dezala Donostia eta Leioako campusaren artean.

2.-Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Donostia eta Leioako campusaren arteko balizko Lurrezuzen zuzeneko garraio-zerbitzua Mugi sistemaren baitan sar dezala.

Donostian, 2024ko urtarrilaren 5ean

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea